

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

**Trelleborg Izarra, S. A. enpresari gas naturala hornitzeko gas natural likidotua (GNL) jaso eta biltegitzeko instalazio satelitea, presiozko gordailu kriogenikoa eta gasifikazio-sistema (eranskina) instalatzeko jarduerarako eta obretarako espedientea jendaurrean jartzea**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 58. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da Novagas Criogenia, SL enpresak eskatuta izapidetzen ari den espedientea, honako jarduera eta obra hauetarako: "Gas natural likidotua jaso eta biltegitzeko instalazio satelitea instalatzea, presiozko depositu kriogenikoa eta gasifikazio-sistema dituen (eranskina), Trelleborg Izarra SA enpresari gas naturala hornitzeko," Urkabustaizen kokatu beharreko 3. poligonoko 406. lurzatian, hirigune gisa sailkatuta.

Ediktu hau argitaratu eta hamabost (15) egun baliouduneko epean, espedientea jendearen eskura egongo da udal-bulegoetan, jardueraren eraginpean daudela uste dutenek azter dezaten eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten alegazioak eta oharrak ondoriozta ditzaten.

Horren berri ematen da, denek jakin dezaten.

Izarran, 2020ko ekainaren 26an

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAÑA*